

# TANGO URDINA

*Narratiba, 48*

Eragotzita dago, legeak salbuespenetan izan ezik, obra honen edozein eratako berregintza, komunikazio publikoa eta moldaketa, aurrez jabetza intelektualaren titularren baimena eskuratzen ez bada. Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitu bezala har daiteke (Kode Penaleko 270 eta hurrengo artikulua). CEDRO erakundeak ([www.cedro.org](http://www.cedro.org)) babesten ditu aipatutako eskubide horiek.

---

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du.*

Azala eta liburuaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

© Aitziber Etxeberria

© EREIN. Donostia 2003

ISBN: 84-9746-151-7

L. G.: S.S.: 1.426/03

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: [erein@erein.com](mailto:erein@erein.com)

[www.erein.com](http://www.erein.com)

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: [edizioak@itxaropena.net](mailto:edizioak@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)

Aitziber Etxeberria

# TANGO URDINA

DONOSTIA, "Opera Prima"  
SARIA 2003



erein

## NEGAR ISILA

Euria ari du kanpoan, euri isila, bakarrik dagoenaren negar errearen modukoa. Goiko etxeoandrea arropa eskegitzera atera ez balitz, ez nintzen konturatu ere egingo.

–¡Manolo! ¿Por qué no has recogido la ropa, si ves que está lloviendo? –sutan dago emaztea eta adrenalinak barruko amorru guztia aterarazi dio.

–¿De qué cojones me estás hablando? –gizonaren erantzuna ez da askoz goxoagoa.

Sukaldetik irten, ateari zarta eder bat eman eta salara joan da, telebista ikusteko asmoz. Han alabarekin hiruz-palau hitz ozen eta gordin izan ondoren, agintea bereganatu eta futbol partida jarri du, Espainia-Estonia adiskidetasun partida. Honek inoren aurpegi txarrik ikusi gabe marru egiteko parada ematen dio. Alabak, berriz, bere gelara joan eta irrati-kasetean musika teknoa jarri du ahal duen ozenen, aita zarata horrekin zigortzeko asmoz.

Ni beheko pisuan bizi naiz, bakarrik, eta nire isiltasunak euren ezusteko espia bilakatu nau. Ez dut esan nahi egun guztia zer entzungo pasatzen dudanik, baina, etxean nagoenean, gorra izan beharko nuke goian gertatzen dena ez entzuteko; izan ere, maindirez inguraturik bizi garela baitirudi. Lekutan geratu dira baserrietako harrizko horma mardul haiek.

Badakit zer ordutan jaikitzen diren, komunera nor joaten den lehenago, nor ematen duen denbora gehiena bere beharrak egiten, zeinek zer lan egiten duen etxean, edo zein den bakoitzaren telesailik edo telebistako programarik gogokoena.

Bai, ni bakarrik bizi naiz eta etxean denbora dezente ematen dut. Lanetik etxera etortzen naiz eta, erreleboka lan egiten dudanez, arratsaldeak eta goizak jai izaten ditut txandaka. Lanean ez nagoenean etxean ematen dut denbora gehiena. Lehen, Naiararekin irteten nintzenean, oso denbora gutxi ematen nuen etxean, beti berarekin geratzeko irrikatan egoten bainintzen, baina garai hura pasatu da, bukatu da niretzat. Orain, noiz edo noiz paseo bat ematera edo inoiz mendialdera ere joaten naiz, baina, zertan ukatu, kalekume bat naiz eta asfaltoa maite dut, bere auto eta kearekin. Ez dut inoiz atsegin izan mendiaren bukolikotasun merke hori. Bakarrik sentitzeko ez dut inongo tontorretara igo beharrik, etxean geratu eta new age moduko zinta lelo bat jartzearekin nahikoa dut.

—¡Virginia, baja esa puta música! —amak arropa bildu eta bere haserrea alabarengana zuzendu du. Alaba, ordea,

erabat minduta dago bere intimitatearen bigarren eraso hau dela eta.

—¡Vete a la mierda! —oin pauso azkarrak entzun ditut eta musika oraindik ozenago jarri du.

Hau gehiegia izan da amarentzat. Alabaren gelara joan, irratia itzali eta alabari agirika hasi zaio, lotsagabekeria handiagoaz kolpatuz. Errespetua da amak nahi duena, baina alabak errespetua irabazi egin behar dela erantzun dio. Orduan amak masaileko bat eman dio Virginiari, aitzak goooooool oihukatzen duen bitartean.

Virginiaren gelan ez da ezer entzuten; negarrez ari bada ere, amorruek malkoak barruratu dizkio. Ama zuzenean bere gelara joan da, beti bezala, ez baitauka senarraren oihuak entzuteko gogorik.

Senarrak sofa aurreko mahaitxoa arrastaka bere oinen azpian jarri eta telebistaren bolumena igo du, etxean nork agintzen duen argi gera dadin.

Kito gaur gauekoa. Partida bukatzean Manolo ohera joango da, merezitako deskantsuaz gozatzera eta, afariaren ordainsari gisa, bere zurrunga bortitzenak oparituko dizkio Margari, bere emazteari.

Hau beste aldera jiratu eta txikitan, Extremadurako bere herrixkan, txerriak hil ondoren zein gustura jaten zituzten urdaiazpiko eta txorizoak gogoratuko da, orduan orain duen arazorik ez zuela pentsatu eta garai hartan bai zoriontsua zela otuko zaio eta negar egingo du, negar isila, euria bezalakoa, bakarrik daudenen negar errea.

## MOZART BANINTZ

Manolok partida ikusten duen bitartean etxeko lanak egiteko aprobetxatu dut. Jada lehorrak zeuden arropak salako saski batean uzten ditut, sofaren atzean, kasualitatez inor etxera etorriko balitz haiekin topo egin ez dezan ustekabean. Hala ere, biziki harrituko nintzateke horrelakorik gertatuz gero. Aspaldi pasatu zen koadrillakoek zerbait hartzeko edo zerbait egiteko deitzen ninduten garai hura. Egia esan, neuk ere ez dut gauza handirik egin haiekiko harremana mantentzeko. Naiararekin atera aurretik beneran ondo moldatzen nintzen beraiekin, baina Naiararekin ibili nintzen hiru urteetan ez nien batere kasurik egin. Hasieran konpromisoz bazen ere, joaten nintzen tarteka antolatzen zituzten afaritara, baino gero, pixkanaka-pixkanaka, gero eta gutxiagotan azaltzen hasi nintzen eta, azkenean, harremana erabat galdu nuen. Naiara, berriz, nirekin baino askoz gusturago egongo da bere mutil berriarekin eta ez dut uste hemendik azalduko denik.

Sukaldera eraman eta mahai gainera irauli dut otarra. Lehendabizi azpiko arropa bereizi eta galtzontziloak tolestu ditut. Ondoren barruko elastikoak ondo estiratu eta jarraian hauek ere tolestu egin ditut. Gainontzeko arropa plantxatzea derrigorrezkoa denez, tolestu ondoren erdi hutsa dudan gela batera eraman eta plantxa taularen gainean utzi dut.

Partida bukatu denez, Manolo telebista itzali eta ohera joan da. Orain isiltasuna ia erabatekoa da. Ia, bai, aldameneko pisuan Iosune musika entzuten ari baita, gauero bezala.

Iosune gaztea eta polita bezain krudela da. Bere burua atsegin du, hori begi-bistakoa da eta gainontzekoak, berriz, bere atsegina lortzeko erabiltzen dituen neurrian zaizkio gogoko. Ziur nago, ni bezalako tipo xume bati erreparatu ere ez diola egiten.

Nik bere gorputzaren zentimetro bakoitza ezagutzen dudala jakingo balu, denuntzia bat jarriko lukeela ziur naiz, ez bere intimitatea bortxatzeagatik, bere baimenik gabe hartaz gozatzeagatik baizik.

Plantxa gelako argia itzali eta komunera joan naiz. Nire bainugela eta Iosunerena orpoz-orpo daude eta badakit orain bainuontzian egongo dela, luze-luze etzanda, aparra goraino duela, bi pepino xerra begietan, maskara berde bat aurpegian eta Mozart entzuten.

Guzti hau ikusi egiten dudalako dakit. Bera pisu honetara etorri aurretik, aurreko jabeek komuna aldatu egin zuten eta, landareak hain gogoko zituztenez, landareak jartzeko pareta faltsu txiki bat eraiki zuten bainugelaren



barruan, bainuontziaren atzean, hain zuzen ere. Guzti hau etxea alokatu nuen egunean jakin nuen. Orain dela sei bat hilabete gutxi gorabehera. Naiara eta biok pisu bat erosia genuen eta elkarrekin bizitzen ere jarri ginen, baina zoritarrez, gaizki atera zitzaigun. Beraz, gure harremana bukatu zenean pisua saldu eta beste bat alokatzea erabaki nuen.

Ettxeko andrea berritsu hutsa da eta, etxea erakustean, bizilagun berriei buruz eskura zuen informazio guztia eman zidan, niri galdera pila bat egiten zizkidan bitartean. Ez nion informazio handirik eman nitaz, ez baitzait ezezagunekin, ezta ezagunekin ere, neure arazoez hitz egitea gustatzen. Pixka bat muturtuta joan zela uste dut, tipo mozolo horietako bat nintzela pentsatuz, baina ez zait batere axola. Bizitzen jarri eta handik egun gutxira konturatu nintzen nire komuneko hormaren baldosa bat erdi askaturik zegoela. Hura lehenbailehen konpontzea erabaki banuen ere, egunak bata bestearen atzetik joan zitzaizkidan ezer egin gabe.

Komunera joan eta alboko bainugelak norbait zegoela konturatu nintzen batean, jakin-minak bultzaturik, begia paretaren kontra jarri eta zirrikitutik begiratu nuen. Ikusi nuenak ia arnasarik gabe utzi ninduen. Berebiziko emakume bat zen nire bizilaguna eta biluzik zegoen, bainuontzira sartzeko asmotan. Badakit ez dudala ondo egiten, baina orduan sentituriko zirrarak beste behin dastatu asmoz konponketa atzeratzea erabaki nuen eta horrela nire hasierako asmo ona bertan behera geratu zen. Badakit espia nazkagarri bat bilakatu naizela, baina

bakardadeak honelako gauzak egitera bultzatzen nau batzuetan.

Ez daki berak ongi zenbat atsegin dudan bere biluztasuna! Horrela ikustean, bera bezain ahaltsua sentitzen bainaiz.

Beti erritual bera egiten du Iosunek. Bainugelara sartu eta, argia piztu ondoren, ispiluaren aurrean geratzen da eta adi-adi bere aurpegi guztia aztertzen du.

Kopetatik hasten da beti, ondoren bekainak, betazalak, betileak eta sudurra etortzen dira, eta azkenik masailak, ezpainak, kokotsa eta lepoa. Bere edertasuna itsustuko duen ezer ez dagoela bermatu ondoren, aurpegia garbitu eta olio usaintsu batez masaje txiki bat ematen du astiro, gozotasunez.

Aurpegikoa bukatu eta gero irekitzen du uraren iturria, ez lehenago eta, bainuontzia bete eta bainugela lurruntzen den bitartean, beste nonbaitera joaten da. Bere gelara uste dut, itzultzerako albornoza bakarrik baitu soinean eta etxeko hari musikala ere piztuta baitago.

Une horren zain-zain egoten naiz, bainuontzia betetzen doan neurrian nire desioa ere areagotzen joaten baita, eta, bera albornoza baino ez duela bainugelara sartzen denean, bihotza ero moduan taupadaka hasten zait.

Uretara sartu aurretik, bere ile luzea motots moduko batean bildu, aurpegiko maskaratoa jarri, uretara bainu gatz bereziak bota eta pepinoak xerraturik dituen plater-toa behin barruan sartu ondoren eskura geratzen zaion aulki txiki batean uzten du. Azkenik, albornoza erantzi eta aulki gainean dagoen kako batean uzten du.

Erabat biluzik ikusten dudan une hori ezin azalduzkoa da niretzat, ez dut inoiz horrelako gauzarik sentitu. Ahal banu, pareta zeharkatu eta nire besoetan hartu eta laztanduko nuke.

Uretara sartu eta etzan eta gero, pepino xerrak begietan jarri eta ordu erdiz edo honela egoten da Mozart entzuten. Eguneko ordu erdi zoragarriena da niretzat!

Hantxe egoten naiz baldosaren zirrikitutik begira, ia arnasarik ere hartu gabe. Begiak erabat lehorturik izaten ditut Iosune bainuontzitik irten, albornoza jantzi eta bainugelatik irteten denean, haren mugimendu txikiena ere ez galtzarren, begiak ixtera ere ez bainaiz ausartzen.

Hamar bat minutu behar izaten ditut errekuuperatzeko eta denbora hau lurrean eserita eman ohi dut, ilunpetan, bihotz taupadek denboraren joan-etorria neurtzen duten bitartean.

Estasiaren ondoren, bakardaderik krudelenean murgiltzen naiz. Hamar minutu horietan neure buruari pena baino ez diot ematen. Egunero, hau egiten dudan azken eguna dela hitzematzen diot neure buruari, patetikoegia baita denbora luzez jasateko. Voyeur puta bat baino ez naizela bilakatu errepikatzen diot behin eta berriro neure buruari eta une horietan erabat nazkagarri eta lizuna sentitzen naiz. Kakaren hurrengo, garbi esateko.

Hala ere, badakit bihar gauza bera egingo dudala, nire opioa Iosune baita. Zoritxarrez bera da ikus dezakedan izar bakarra, beste guztiak aspaldi itzali baitziren niretzat. Ez dakit nola iritsi naizen egoera honetara, baina ahal

dudan neurrian aurrera jarraitzeko ilusio txiki baten beharra daukat.

Inori aitortu ez badiot ere, Naiararekin nuen harremana haustea oso gogorra izan da niretzat. Oraindik ere gertatu dena ezin sinesturik nago. Badakit berarentzat ez naizela ondo portatu eta gurea bukatzearen errua niri botatzen didala, baina, azken finean, bera izan da beste batekin joan dena eta ez alderantziz. Gurea niretzako hain garrantzitsua bazen, ea zergatik ez nuen ezer egin berriro ere nirekin itzul zedin esan zidan berak. Baina zer egin behar nuen ba nik, beste batekin zebilela esan zidanean? Zer nahi zuen, belauniko jarri eta nirekin geratzeko erregutzea? Nik ez dut horrelako harremanik nahi.

Egia esan, inozo hutsa izan naizela uste dut. Berak aspaldidanik esaten zidan elkarrekin oso denbora gutxi ematen genuela eta berak denbora gehiago egon nahi zuela nirekin. Baina noski, nik gauzez egiten nuen lan eta oso zaila zen elkarrekin egoteko denbora izatea, ni esna nengoenean bera lanean baitzegoen eta berak jai zuenean ni lo bainengoen, deskantsatzen.

Tango klaseetara apuntatzea proposatu zidanean berriz, ia erotu al zen galdetu nion. Berak elkarrekin egoteko eta jende berria ezagutzeko aukera paregabea zela iruditzen zitzaiola erantzun zidan eta nik berriz nire ordutegian ez pentsatzea leporatu nion. Azkenean, bera bakarrik apuntatu zen ditxosozko tango klaseetara eta, orain argi ikusten dudan moduan, hura izugarritzko akatsa izan zen.

Gerora berak aitortu zidanez, han ezagutu zuen bere maitale berria eta nik berarekin egoteko ezer egiten ez nuenez, harekin joatea erabaki zuen.

Eta hori da dena, hiru urteko harremana tango klase-etan ezagutu zuen tipo txatxu bategatik aldatu zuen Naiarak, besterik gabe. Nire izaera pasiboari errua boteaz gainera. Benetan penagarria iruditzen zait bere jokaera, baina orain ez dago zereginik, beraz nire bakardadea nola edo hala bete behar dut.

Lasaitzen naizenean eta goian ere ezer entzuten ez denean, etxeko argi guztiak itzali eta ohera joaten naiz, hurrengo eguna igaro dena baino hobea izango delako esperantzaz.

## MAITEA NON ZIRA?

–Atzo gauean ere, bronka izan nuen gurasoekin  
–Virginiak aurpegi tristez begiratzen dio Imanoli.

–Bueno, lasai, normala da gurasoekin haserretzea  
–Imanolek Virginiaren bakeroen atzeko poltsikoan sartu du eskua eta lehen baino gehiago bereganatu du neska lagunaren gorputza.

–Bai, badakit, baina nire aita jasanezina da, beti non nagoen galdezka, ea zeinekin nabilen, kontuz nora joaten naizen eta halako ordutan etxean egoteko –Virginiak ere Imanolen ipurdian jarri du eskua, haren gorputzaren hurbiltasuna oso atsegin baitzaio–. Kartzela batean nago-ela dirudi. Ezin ezer egin berak jakin gabe.

–Tira Virginia, ez zaitez dramatikoa izan, ez da hain-besterako izango eta –Imanolek behera begiratu du Virginiaren begiak aurkitu nahian. Bere sorbaldatik 15 bat zentimetrora aurkitu ditu Virginiaren begi beltzak, espero zuen errukia lortu ez dutelako minduta.

–Ez noski, zuretzako dena oso polita da, zure guraso-ek nahi duzuna egiten uzten dizute inongo azalpenik eskatu gabe –Virginia haserretu egin da eta Imanolen ondotik aldentzeko keinua egin du.

–Ez zaitez tuntuna izan! –Imanol bere atzetik joan eta eskumuturretik heldu du–. Nik ez dut esan zure guraso-ekin bizitzea erraza denik, baina gauza okerragoak badi-ra –orain aurrez aurre daude Imanol eta Virginia–. Ez duzu oso urrutira joan beharrik hala dela jakiteko. Eta aitaren galderek hainbeste molestatzen bazaituzte, ba ez onartu eta kito! –Imanolek Virginiari begiratu dio bere oniritziaren bila, eta honek baiezko mugimendu txiki bat egin dio buruaz, ondo dagoela adierazteko. Imanolek musu bat eman dio Virginiari ezpainetan eta, gerritik heldu ondoren, kalean behera jarraitu dute eskolarako bidean.

Ez dira konturatu ere egin bi metro atzerago nengoenik. Ez dira inoiz konturatzen elkarrekin daudenean.

Goizero Imanol Virginiaren bila etortzen da eta, ezkaratzean itxaron beharrean, alboko etxeko fruta dendaren izkinan egoten da; Virginia etxetik ateratzen ikusten duenean, fruta dendaren atzealdera pauso pare bat ematen du, Virginiaren ezkaratzetik irteten den inork ikusiko ez lukeen tokian geratzen den arte.

Virginia zuzenean fruta dendara joan eta izkina presaka hartzen du, kartzelatik ihesi joango balitz bezala eta, Imanol ikusten duenean, ibilera ere aldatu egiten zaio. Ziur nago ez zaiola batere axola, udara izan arren, ikastaro bat egitera joan beharra.

Imanolengana iritsi eta egun onak musu batez ematen dizkionean, berriz, badirudi ez dagoela munduan hura baino neska zoriontsuagorik.

Manolok bere alaba norekin dabilen jakiten duen egunean, ez nuke Virginiaren azalean egon nahi. Manolori ez zaio batere gustatuko Imanol, izenean baka-rrik baitute puntu komun bakarra.

Manolok mutil luze eta mehar bat ikusiko du bere aurrean, ezkailua, hitz batean esateko. Ile luzexka, kizkurr-rra, orrazi edo zepilorik ezagutu ez duena eta, noski, gomina eta arrastoa zer diren ere ez dakiena. Ile luze kizkurrak eskuin belarrian uztai txiki bat agerian uzten duela konturatuko da, hala ere, eta honek Manoloren bekozkoa ohi baino gehiago ilunduko du.

Eta, zeresanik ez, Imanoli futbola eta autoak bost piper axola zaizkiola konturatzen denean, ez dakiela nor den ligako liderra edo pitxitxia edota Barçak Champions League zeinen kontra jokatzen duen ere. Manolok bere biboteko ileak banan bana kenduko ditu Imanolen intsumisioaren aldeko pina ikusi eta Itoiz urtegiaren aurkako manifestaldi batera joateko intentzioa duela esaten dioe-nean.

Bere alaba burutik uste baino okerrago dagoela pentsatu eta Imanol etxetik bidaliko du, hara, bere santutegira berriro inoiz ez sartzeko mehatxupear, eta bere alaba lehen baino kate motzagoan edukitzen saiatuko da, berri-ro horrelako jendilajearekin elkar ez dadin; eta Marga, ohi bezala, ez da ausartuko bere senarrari astapotro bat dela eta isilik egoteko esaten.



Imanolek, berriz, ez du ezusteko handirik hartuko, Virginiak mila bider deskribatu baitio bere aita nolakoa den. 20 urte ditu Virginiak eta, 6 urte zituenetik, badaki ez duela inoiz bere aitaren ilusiorik beteko. Manolok futbole-  
ra nahiz ehizara joateko eta tabernako lagunak kontra mus partida bat jokatzeko bikotea baitzuen gogoan, Margak haurdun zegoela eta 9 hilabete ondoren aita izango zela jakinarazi zioenean, eta ez alaba. Manolok ez dio bere alabari inolako aukerarik eman inoiz eta noski, beraien harremana ez da batere ona.

## ITZIARREN SEMEA, HORI DUN MUTILA

Manolok ez zuen inoiz ere gainditu haurtzaroko gertakizun hura. Nola gainditu, izan ere! Bere aitak auzokide guztien aurrean barregarri utzi zuen. Oraindik ere, bere jaiotetxeko ukuilu zikin hura gogoratzen duen bakoitzean, odola irakiten hasten zaiola iruditzen zaio. Behin baino gehiagotan ezabatu nahi izan zuen oroitzapen triste hura bere burutik, baina erabat ezinezko bilakatzen zitzaion behin eta berriz.

Okerrena zera zen, ez ziola inoiz inori gertatuaren berri eman. Sarritan sentitu zuen barrua husteko beharra, baina, bere duintasunak edo lotsak edo besteen aurrean berriro ere barregarri geratzeko beldurrak, edo agian denak batera, ez zion pauso hau emateko paradarik eman. Eta azkenean ziur zegoen, egunen batean, barruan zeraman iturri haren urak gainezka egingo zuela. Orduan gerta zitekeenaz, berriz, ez zuen pentsatu ere egin nahi.

Gogoan zuen bere jaioterria utzi eta hirira lan bila etorri zenean poza sentitu zuela. Bere bizitza laburrean, lehen aldiz, zoriontsu sentitu zen Manolo. Bizitza berri bat zuen bere aurrean. Inork ezagutzen ez zuen hiri handi batean zegoen orduan eta, soldata handirik ez bazuen ere, logela txiki bat alokatu eta goserik pasatu gabe aurrera jotzeko aukera zuen. Agian ez zen gauza handia izango, baina beretzat, inoiz ezer bererik izan ez zuen mutil gazte harentzat, paradisua zen hura.

Marga ezagutzea berriz, ezusteko galanta izan zen Manolorentzat. Lankide batek aurkeztu zituen igande arratsalde batean. Munduko emakumerik ederrena ez bazen ere, alai eta ona iruditu zitzaion Manolori. Ez zuen gehiago pentsatu. Hirira etortzearen onurak aprobetxatu eta Margak beretzako izan behar zuela erabaki zuen. Handik aurrera, ahal zuen guztietan, Margarekin topo egiten saiatzen zen.

Bere lantoki aurretik pasatzen zen libre zuen guztietan, eta laster jakin zuen non bizi zen ere. Ordutik aurrera, lanean ez bazen, ezkaratz inguruan itxaroten zuen Manolak; Marga azaltzen zen bakoitzean, harengana hurbiltzen zen, beraiek egunero elkar topatzea kasualitatea izango balitz bezala. Handik urte betera ezkondu ziren. Hura bere gailurra izan zela pentsatuko zuen geroago Manolak.

Hasieran oso ondo etorri ziren Marga eta bera. Biak hiri handi ezezagun batean zeuden lehenengo aldiz. Gazteak ziren eta, lehen aldiz beren bizitzetan, loturarik gabe bizitzeko aukera zutela konturatu ziren. Han ez

zegoen ez gurasorik, ez bizilagunik, ez herriko apaiz zorrotzik... Jendea besterik ez. Beraiek bezalakoxe jendea.

Beraien sekretuak seguru zeuden han. Ezkondu eta Marga ezagutzen zihoan neurrian, beroni bere barrua hustea ere pentsatu zuen Manolok, baina, garaia helduta, ez zuen behin ere adorerik bilatzen. Hain gaizki pasatu zuenez, ez zuen inola ere gertakizun hura berritu nahi, nahiz eta jakin behar-beharrezkoa zuela barrua hustea.

Azkenean, bere buruari promesa finko bat egin zion, bere lehen semea izaten zuen une beretik, bere ondoan egongo zela gau eta egun, berak umetan sentitu zuen lotsa bere semeak inoiz senti ez zezan.

Erabaki hura hartu zuen egunetik aurrera, gizon bertitu bat zela konturatu zen Manolo. Azkenean bere gaitz guztietatik sendatuko zuen edabe magikoa topatua zuen. Semea. Seme hark bere aitak kendu ziona itzuliko zion eta aldi berean, Manolok bere aitak inoiz eman ez zion maitasun hura emango zion.

Egun haren ondoren, bere ametsa lehenbailehen gauzatu behar zuela erabaki zuen Manolok eta, beraz, gau hartan bertan, Margarekin hitz egin eta seme bat izan nahi zuela esango ziola erabaki zuen. Bere arazoan irtenbidea bere eskuetan zegoenez, lehenbailehen hasi behar zuen lanean.

Margak ez zuen espero bere senarrak gau hartan esan ziona esango zionik. Berak ere seme-alabak izan nahi zituen, baina ez oraindik, ez hain azkar. Oraindik ezkondu berriak ziren eta ez zuten diru askorik, eta, gainera,

berak orain oso lanpostu ona zuen, Manolok adina kobratzen zuen. Haurdun geratuz gero, lana utzi behar-ko zuen eta gero, denboraldi luze batean, ezingo zen berriro lanean hasi. Marga oso gaztea zen, eta bazuten nahiko denbora seme-alabak izateko; bere ustez garrantzitsuagoa zen diru pixka bat egitea lehendabizi.

Baina Manolok ez zion jaramonik egin. Ez zuen diru kontuaz ezer entzun ere egin nahi. Bere soldata nahikoa zela erantzun zion bere emazteari eta azken finean erabakia hartua zegoela. Margak ez zion ezer erantzun, ordu-rako bazekielako zeinen burugogorra zen bere senarra, eta erabaki bat hartzen zuenean, alferrekoa zela bere iri-tzia.

Gau hartan bertan joan ziren seme bila.

## GORA SAN FERMIN!

Iruñean zeuden biak. San Ferminetan! Virginia zora-tzen zegoen. Ezin zuen sinestu ere egin oraindik. Imanoli begiratu zion Virginiak, benetan mutil aparta zen Imanol. Beragatik izan ez bazen, ez ziren han egongo.

Imanolek proposatu zuen San Ferminetara joateko ideia. Virginia isilik geratu zen Imanolek Iruñera joateko proposamena egin zionean.

–Zer duzu, ez duzu Iruñera joan nahi festetara edo zer? –Imanolek Virginiaren aurpegian ikusi zuen keinua ikusita, bere plana pikutara joango zela pentsatu zuen.

–Bai, joan nahi dut, baina ezingo dut –Virginiak edo-zer egingo zukeen Imanolekin festa haietara joateko, baina bazekien bere aitak ez ziola inola ere utziko gaupasa egiten.

–Zergatik esaten duzu hori, diruarengatik? Horregatik bada lasai, nik ordainduko dizut autobuseko joan-etorria eta han ez dugu hainbeste gastatuko –Imanolek bazekien

ez zela diru kontuagatik izango, baina ez zuen amore eman nahi.

–Dirua! Hori balitz nire arazorik handiena! –Virginia pixka bat haserretu egin zen Imanolekin, diruarena aitzakia tonto bat besterik ez baitzen. Imanolek ondo asko zekien zein zen bere arazoa eta horrela hitz egitean lortzen zuen gauza bakarra bera presionatzea zen—. Badakizu zergatik ezin naizen joan, nire aitak ez dit amestetan ere utziko hara joaten!

–Zure aita! Banekien zure aita aipatu gabe ez genuela bukatuko! –Imanolek amorrazioz erantzun zion. Nazkatzen hasia zen Virginiarekin egin nahi zituen plan guztietan bere aitarekin topo egin beharraz. Ez zuen ulertzen nolatan Virginiak ez zion aurre egiten, jada 20 urte zituela eta bere erabakiak hartzeko gai zela esaten. Berak ez zuen behin ere horrelako arazorik izan. Bere gurasoak oso liberalak ziren zentzu horretan, eta bere semea nondik nora zebilen gainbegiratzen bazuten ere, ez zuten inola ere itotzen modu horretan.

–Eta orain horregatik nirekin haserretuko zara, ezta? –Virginia ere nazka-nazka eginda zegoen egoera hartaz. Bazirudien Imanol, bere aita eta Virginia zirela elkarrekin zebiltzanak. Bikote bat beharrean hirukote bat osatzen zutela. Eta okerrenea zera zen, bere aitak ez zekiela mutil batekin zebilenik, baina jakiten zuen egunean, bereak eta bi aditu beharko zituela.

–Ez... –Imanol gaizki sentitzen zen Virginiak begiratu hura botatzen zioenean. Bazekien ez zela Virginiaren errua horrelako aita bat izatea eta berak baino askoz ere

gehiago sufritzen zuela hura jasan beharrekin, baina askotan bere onetik aterarazten zuen—. Ez da zure errua eta ez nago zurekin haserreturik, baina egoera honek amorrua ematen dit.

—Baita niri ere, baina ezin dugu ezer egin. Nire aita ez da aldatuko! —Virginiak aspaldi hartu zuen bere aitarekin beste harreman bat edukitzeko etsia.

—Ez, ez da aldatuko, baina bere atzaparretatik ihes egi-teko moduren bat asmatuko dugu —Imanolek Virginia bere besoetan hartu eta estu-estu helduaz musu bat eman zion.

—Zu jota zaude —erantzun zion Virginiak irribarre eginaz. Oso atsegin zuen Imanolek zuen baikortasun hura.

— Bai, jota nago, aspalditik, baina horregatik maite nauzu, ezta? —Imanolek oso gustuko zuen Virginia horrela ikustea lasai, irribarrez.

— Zuk hala esaten baduzu... —Virginiak beste musu bat eman zion eta bere horretan geratu zen egun hartako elkarrizketa.

Ezustean etorri zitzaion Virginiari bere arazoaren irtenbidea. Aste hartan bertan, bere aitaren arreba zaharrenaren telefono deia jaso zuten. Bere senarra minbiziak jota zegoela eta azkenetan zegoela esateko deitu zien. Virginiaren aitak, gogo txarrez bazen ere, herrira joango zirela esan zion bere arrebari, asteburuan, hain zuzen ere. Ostiral arratsaldean abituko ziren herrirantz, Manolak lana bukatu orduko, eta igande iluntzean itzuliko ziren.

Virginiak, Imanolek konbentzitu ondoren, bere amarekin hitz egin eta Iruñera joateko zuten intentzioa adierazi



zion. Amak bazekien Virginia mutil batekin zebilela eta ahal zuen guztian laguntzen zion bere alabari. Baina oraingo honetan ez zen hain erraza izan. Alde batetik, beldurra ematen zion bere alaba mutil batekin gaupasa eginaz ibiltzea, ezagutzen ez zuen hiri batean, eta bestetik, bere senarra hortaz enteratzen bazen, gerta zitekeenaz beldur zen. Horrelakorik jakinez gero, jo eta garbituko zituen bera eta alaba!

Baina Virginiak dena ondo pentsaturik eraman zuen. Ama umezain ibiltzen zen eta asteburu batzuetan, gehienbat udan, haurra gauez zaintzeko deitzen zioten. Berak ezin bazuen Virginia joaten zen eta oraingo honetan, Imanolek dei faltsu bat egingo zuela esan zion Virginiak amari. Hirurak etxean zeuden une batean deituko zuen eta horrela, Manolok elkarriketa guztia entzungo zuen. Marga bera ezin zela joan, baina bere lekuan alaba bidaliko zuela esango zion eta, horrela, Manolok ez zuen Virginia herrira joateko behartzerik izango, lana hori baino askoz garrantzitsuagoa baitzen beretzat. Gainera, lasai joango zen herrira, alaba larunbat gauean parrandan ibili beharrean, lanean egongo zela pentsatuz joango baitzen.

Beraien planarekin bete-betea asmatu zuten. Imanolek deitu zuenean Manolok hartu zuen telefonoa gainera, bere ohitura zen bezala, eta ez zuen batere susmo txarrik hartu.

Eta horrela Iruñeraino iritsi ziren. Imanolek ordu arte inoiz ez bezala disfrutatuko zuela esan zion Virginiari eta, Iruñea zapaldu orduko, bi zapi gorri erosi zituen kalean

zegoen postu batean. Horrela festan murgilduko ziren eta, gainera, ihesaldi haren oroigarri bat izango zuten. Imanol zapi gorria lepoan lotu orduko hasi zen dantzan eta tontoarena egiten kale erdian. Virginia berriz, oraindik ere kezkatuak zegoen. Beldurra zuen zerbait gaizki aterata eta bere aita gezur guztiaz enteratuko ote zen pentsatuz. Horrelakorik pasatuz gero, ez zuen pentsatu ere egin nahi zer gertatuko zen!

Bere beldurrak uxatu nahian Imanoli begiratu zion. Urruneko konpartsa baten doinuak jarraituz dantzan zebilen. Hura bai zortea, horrelakoa izatea. Virginiak ere nahiko zukeen zituen kezkak albo batera utzi eta festan besterik gabe murgiltzea, baina berarentzat ez zen hain erraza.

Oraindik ez zuen ulertzen Imanol zergatik zebilen berarekin eta Imanoli inoiz ez bazion esan ere, edozein egunetan beraz aspertu eta beraien artekoa bukatu eta bazihoala esango zion beldurra zuen Virginiak. Hain ziren ezberdinak biak! Imanolek bizitza ederra zela pentsatzen zuen eta une oro disfrutatu behar zela. Virginiak berriz, bazekien zer zen sufritzea.

Txikitatik konturatu zen bere gurasoak ez zirela bere ikaslagunenak bezalakoak. Bere bila ama bakarrik joaten zen. Eskolako festa zutenean ere, ama bakarrik azaltzen zen, eta zeresanik ez irakaslearekin hitz egin behar zenean. Bere ikaskide batzuek aitarik ez zuela pentsatzen zuten, elkarrekin eman zituzten urte guztietan ez baitzuten inoiz ikusi.

Baina Virginiak aita bazuen, eta ez nolana hiko gainera! Aita! Bere lagunak euren aitaz hitz egiten entzuten

zituenean, inbidia pasatzen zuen Virginiak. Denek zituzten gorabeherak eta kasketaldiak beraien gurasoekin, baina, askotan, harro-harro hitz egiten zuten haiez. Berak ez zuen inoiz horrelakorik egin.

Bere aitari izugarrizko errespetua eta beldurra zion Virginiak. Aita pentsatu orduko zigorra etortzen zitzaion burura. Izan ere, txikitatik ohitu zen aitaren gustuko ez zen zerbait eginez gero zigorra jasatera. Eta hau oso sarritan gertatzen zen. Hasieran negar egiten zuen Virginiak eta aitari barkamena eskatzen zion eta berriro ez zuela horrelakorik egingo esaten zion, baina aitak ez zion behin ere barkatzen. Txikitatik ikasi zuen Virginiak postrerik gabe geratzen edo telebistako saiorik gustukoena ez ikusten edo etxean bakarrik geratzen edo zinemara joan gabe... Zerrenda amaigabea zuen buruan.

Eta ama berriz... Virginiak bazekien amak asko maite zuela eta ahal zuen guztia egiten zuela Virginiaren alde, baina ez zen nahikoa. Aitak zuen botere guztia eta amak egin zezakeena oso gutxi zen, horregatik sarritan bere amarekin haserretzen zen Virginia. Berak sentitzen zuen frustrazio haren errua bere amari egozten zion eta aitaren kontra ezin zuela ezer egin edo esan zekienez, amarekin haserretzen zen nahiz eta gero gaizki sentitu.

– Zertan ari zara pentsatzen orain ere? –Imanol oso umore onez zegoen eta Virginiarekin konpartitu nahi zuen–. Alaitu aurpegi hori neska, San Ferminetan gaude eta!

–Lasai, ez da ezer, uste dut autobusean pixka bat mareatu naizela, besterik ez –Virginiak ez zuen Imanolek

zertan pentsatzen ari zen susmatzerik, nahi eta berak ere ondo pasatzeko gogoia zuela pentsatuz, Imanoli eskutik heldu eta musu eman zion—. Bueno, eta nora joango gara?

—Nahi duzun lekura —Imanolek ere musu eman zion Virginiari, eta Iruñeko kaleetan galdu ziren.